

Hamargarrena. Izena: Hedabideen ordezkarien akreditazioa

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.e) artikulua: Eginkizun bat interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzuz betetzeko behar den tratamendua.
- b) Tratamenduaren xedeak: Hedabideen ordezkariak, Parlamentuari buruzko informazioa emateaz arduraturik Parlamentuaren akreditazio ofiziala dutenak egoitzara eta bilkura publikoetara sartzeko.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: hedabideen ordezkariak
- d) Datu-kategoriak: izen-deiturak, NANA eta argazkia.
- e) Hartzaile-kategoriak: ez dago lagapenik.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.